

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**49/2019 Foru Agindua, otsailaren 4koa, onesten duena deialdiaren ebazpena, Giza Baliabideen Zerbitzuko Aukeraketa eta Lege Araubidearen Atalaren buru lanpostua (kodea: 1012.001) berariazko lehiaketa bidez betetzeko**

Azaroaren 5eko 516/2018 Foru Aginduaren bidez (2018ko azaroaren 12ko ALHAOn, 130. zk., argitaratu zen) deialdia egin zen Giza Baliabideen Zerbitzuko Aukeraketa eta Lege Araubidearen Atalaren buru lanpostua (kodea: 1012.001) berariazko lehiaketa bidez betetzeko.

Merezimenduen balioespenaren emaitzak argitaratuta, Balioespen Batzordeak proposatzen du lanpostu hori Carlos Auzmendi Irastorzari esleitzea.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuan xedatutakoarekin ezarritakoarekin bat etorritik, Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta, otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko atxikitzea Carlos Auzmendi Irastorza Giza Baliabideen Zerbitzuko Aukeraketa eta Lege Araubidearen Atalaren buru lanpostua (kodea: 1012.001).

Bigarrena. Ezin zaio uko egin esleitutako lanpostuari eta, lanpostuaz jabetu ondorengo bi urteetan, ezin izango du parte hartu lanpostuak betetzeko deitutako lehiaketetan, baldin eta funtzionarioak lanpostu hori galtzen ez badu Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 50. artikulua 3. paragrafoan eta 4. paragrafoaren a) idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik.

Hirugarrena. 2019ko urtarrilaren 5ean utziko du jatorrizko lanpostua.

Laugarrena. 2019ko urtarrilaren 6ean jabetuko da esleitutako lanpostuaz.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikuluaekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritik.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 4a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR